


BATAIOA
SAIOA III

ZAP!

KIDE IZATEN IKASI



Saio hau izango da beren seme eta alabak bataiatuko dituzten familiekin egingo dugun azkena. Eliza Jesusen jarraitzaileen elkarte bezala aurkeztuko diegu eta elkarte hori, hain zuzen, beren parrokia – Pastoral Barrutian zehazten dela azalduko eta hortxe bataiatuko dituztela beren seme eta alabak eta hauek kristau elkartean txertatuko direla.

Gainera, Bataioaren sakramentuaren ospakizunaren ingurukoak aurkeztuko dizkiegu, ohikune eta keinuak eta guzti hauen zentzua azalduz. Gutxienez atal honetan, Bataioan buru izango den apaizak egon beharko luke.

SAIOAREN HELBURUAK



Kristau fedea elkartean bizi eta batera jarri behar dugula sentitu.



Sakramentuek Jainkoak gure bizitzan duen agerpena aditzera eta agertzera ematen dutela antzeman.



Bataioaren beraiazko ohikunean ulertu eta nork bere egin.

GARAPENA

Hasteko, elkar agurtuko dugu eta giro egokia sortu. Gaiaren sarrera erara, Macacoren "Una marea de gente" abestia entzungo dugu.

EGIN KLIK
KLAKETAN
BIDEOA IKUSTEKO

"Talde jendetsua": Irudiak Elizaren izaerara gertutatzen gaitu. Baina ez hori bakarrik, askoz gehiago da: Jeusengan sinesten dugun eta fede horrek dakarkigun eta batasun horren eraginez, anai eta arreba bezala, Jainkoaren Erreinuaren eraikuntza bizi dugun pertsonen mundu osoko eta lekuko elkarte. Gure fedea ez da banakakoa, elkartekoa baizik.

Eta Bataioaren bidez lotzen gatzazko fede-elkarte honi. Eliza gure familia dela hots egiten dugu bataioan. Kristorengan sinesten dugunok etxeko sentitzen garen elkarte da. Bertan, elkar maitatzen eta laguntzen saiatzen gara, fede eta itxaropen berean elkarturik, eta mundu zuzen eta solidarioagoa, Jainkoaren Erreinu, eraikitzen laguntzen dugu.

ELKARTE FEDEA

Dinamika "Dorreen eraikuntza"

"Dorreen eraikuntza" (joko kooperatiboa). Koloretako folioak, guraizeak eta zela banatuko ditugu partaideen artean, zutik iraungo duen ahalik eta dorrerik altuena eraikitzeko. Gauza bana emango diegu: edo zela, edo guraizeak, edo koloretako folioak. Minutuko epean eta material horrekin dorrea eraikitzeko esango diegu. Bakarka ezinezkoa denez, beste batzuekin elkartu eta lortuk dutela pentsatu behar dute. Dorre bat baino gehiago izanez gero, denak elkartuko ditugu.

Dinamika amaitu eta eraikitako dorreei begiratzuz, esperientzia komentatuko dugu, ideia huez baliatuz:

-  **Lehen ideia:** lagun bakoitzak bere esku zuena jarri du dorrea eraikitzeko; baina bakoitzak duenarekin bakarrik ezin da ezer egin, ezinbestekoak dira besteak. Nire fedea, besteen fedean oinarritzen da. Gainera, gure dorreak elkartuz gero, hobeto irauten dute zutik eta sendagoak dira. Gure fedea, besteen fedeari elkartuta, sendagoa da eta hobeto irauten du (dorreak bataioaren ospakizunean agerdaitezke).
-  **Bigarren ideia:** Geure baitatik atera egin behar dugu eta besteekin bat egin Jainkoarengana iritxi ahal izateko. Horregatik, ezinbestekoa da Elizari lotzea.
-  **Hirugarren ideia:** bataiatzeak Elizari, jarraitzaileen elkarteari lotzea adierazten du. Eliza ez da errealtate abstraktu edo urrunekoa, lekuko Elizan, parrokian, Pastoral Barrutian zehazten da.

ELIZ EGITASMOA, PASTORAL BARRUTIA



"Alkartea"

Une honetan, PBaren pastoral egitasmoa aurkeztu. Zer da gure Pastoral Barrutia? Zer egiten du? Zer eskaintzen? Zein taldek funtzionatzen du eta zein jarduera du?...

SAKRAMENTUAK



Saioaren azken zati honetan, Bataioaren ospakizuna izango dugu aztergai. Horretarako, sakramentu-esperientzian sarraraziko ditugu partaideak, ospatzen dugunaren sen eta esanahia azalduz. "Biziaren zeinuak" power pointzaz balia gaitzke horretarako eta ondorengo ideien azalpenaz:

 Kristauok batzuetan, "hitz potoloak", hau da, askok ulertu ere egiten ez dituen esamoldeak erabiltzen ditugu. Kalera atera eta "sakramentua" hitzaren esanahiaz galdetuz gero, gutxik esango digu ikusten ez den zerbaiten ageriko zeinu dela. Leonardo Borrek azalpen hau ematen du "Los Sacramentos de la vida" liburuan: egunerokoa sakramentuz beteta dago. Egunekoaren arkeologian sakramentu biziak, bizitakoak eta benetakoak hazdten dira. Neure familiaren edalontzia da; lanerako mahai zaharra; Eguberrietako kandela lodia; lorontzia bi lorerekin mahiarengainean; mendi hegala hura; antzinako bide harritsua; aitaren etxe zahara, e.a. Gauza horiek dagoeneko ez dira gauza, hitz egiten dute, barrualdea eta bihotza dituzte, sakramentu bihurtu dira". [1]

- Zein "sakramentu" antzematen duzu zeure bizitzan? "Beste zerbait" adierazten duten ikusten eta ukitzen duguna ez ezik beste errealitate handiagoa adierazten zeinuak, sinboloak.

 Besarkadak edo musuak pertsonaiei diegun maitasuna agertzen duten bezala, sakramentuak Jainkoaren agerpen eta maitasuna - eutsi egiten gaitu, bizitzarako indarra ematen digu, adiskidetu egiten gaitu eta abegitsu da - gure bizitzetan eta munduan agertzen dituzten zeinuak dira.

Sakramentuak bat datoz gizakiaren bizitzako une garrantzitsuekin:

- Bataioa, biziaren hasiera
- Lehen Eukaristia, haurtzaroaren amaiera
- Sendotza, adin-nagusitasuna,
- Ezkontza/Apaiz ordenazioa bizitzarako aukera
- Adiskidetzea, krisialdi pertsonala
- Gaixoen oliadura, ahuleziaz beteriko uneak, biziaren azkena

1] Boff, L. Los sacramentos de la vida, Sal Terrae, 1977, 21. or

✱ Sakramentuak ez dira magia, Jainkoa geure bizitzan agertzera emateko balio diguten zeinuak baizik. Seme eta alabak bataiatuz zera eman nahi dugu agertzera besteen aurrean: Jainkoa seme-alabentzat garrantzitsu eta esanguratsu izatea nahi dugula. Bataioaren bidez, kristau elkarteari lotzen gatzizkio.

✱ Azken diapositiben bitartez, Bataioaren ohikuneak, esanahia eta ospakizunaren antolamendua azalduko ditugu. Beraiek, aita eta amek, seme-alabentzat Bataioa eskatzean, fedean hastapenak ematera konprometitzen dira eta kristau elkarreak gurasoei egiteko horretan laguntzako konpromisoa hartzen du.

✱ ESNATU erlijio esnatzerako egitasmoa aurkeztu eta horretan parte hartzeko dei egingo diegu.

SAIOAREN AMAIERA

**BIDEA IKUSTEKO,
EGIN KLIK KLAKETAN**



Bataioaren ospakizunaren aurreko saio honi eta aurrekoei amaiera emateko, astia emango diegu bakoitzak bere koadernoan bizi izandako esperientziatik nabarmendu nahi duena idatzi eta beren seme eta alabak fedean sartzeko zer egingo duten pentsa dezaten.

Ondoren, idatz dezatela post-it batean Jainkoari zergatik eman nahi dizkion eskerrak eta 'Muxote Potolo Bat' irudiaren gainean itsas dezala. Irudia eta esker oneko adierazpenak Bataioaren ospakizunean aurkeztuko dira.

"Tartetxo bat Jainkoagaz"

Inoiz ez da goizegi seme-alabei Jainkoaz hitz egiteko. Gaur bertan has gaitezke. Nazareteko jesusen mezua ondo laburbiltzen duen Aim Karemen kantu bat dago: "Behetik, barrutik eta hurbiletik, gizon egiten zara Nazareten eta gauzarik txikienetan sinesteko dei egiten diguzu". Seme edo alaba bileretara ekarri duenak, besoetan har dezala eta ekarri ez duenak, berekin duela imajina dezala eta, isilik, entzun egingo dugu:



**ENTZUTEKO,
EGIN KLIK
IRUDIAN**